



TEATRO  
ARRIAGA  
ANTZOKIA

## Ausrine Stundyte soprano handia Arriaga Antzokira dator Arnold Schönbergen *Erwartung* opera enigmatikoa interpretatzeko, Calixto Bieitoren zuzendaritzapean

- Soprano lituaniarra, nazioarteko ahots liriko bikainenetako bat duenak, arrakasta handia izan du duela gutxi Madrilen *El ángel de fuego* interpretatzen; orain Bilbora itzuliko da, *Mendi-Mendiyan* obrarekin arrakasta handia izan zuen lekura.
- Stundytek bere ahots hunkigarria eta interpretaziorako indarra Schönbergen lanaren zerbitzura jarriko ditu, Andrej Hovrin maisuak pianoan lagunduta eta Gaizka Chamizo aktorearen parte hartzearekin.
- Arriaga Antzokiak ekoiztako ikuskizuna dugu, Calixto Bieitoren eszenaratze ederra duena eta bi egunetan ikusi ahal izango dena: ostiralean, apirilaren 29an, 19:30ean, eta larunbatean, ordu erdi lehenago, 19:00etan.

**Bilbon, 2022ko apirilaren 25ean.**- Arriaga Antzokiak mailarik handieneko ikuskizuna eskainiko du aste honetan, apirilaren 29an (ostirala) eta 30ean (larunbata), bai interpretatuko den *Erwartung* operagatik, bai ekitaldiaren protagonista den sopranoaren mailagatik. **Ausrine Stundytez** ari gara, zeina Bilbora etorriko baita Madrilgo Errege Antzokian, Calixto Bieitoren zuzendaritzapean, *El ángel de fuego* interpretatuz arrakasta handia izan ostean. Calixto Bieitok berak zuzentzen du ere *Erwartung* eta, horretarako, eszenarako proposamen ezohikoa eta edertasun handikoa aurkezten du, abeslaria besaulki-patioan jartzen baitu, eta ikusleak, berriz, eszena inguratzen.

Ausrine Stundyte gaur egun nazioartean gehien txalotutako ahotsetako bat da eta Bilboko ikusleak txundituta utzi zituen jada iaz, 2021eko ekainean, hain zuzen ere, bere ibilbidean lehen aldiz *Erwartung* (euskaraz, *Itxaronaldia*) ekitaldi bakarreko opera interpretatu zuenean, **Arnold Schönbergen** musikarekin eta Marie Pappenheim-en libretoarekin. 1909an konposatua izan arren, ez zen estreinatu 1924ko ekainaren 6ra arte, Pragan. Stundytek aspalditik du harremana Bieitorekin, eta hainbat proiektutan egin dute lan elkarrekin, besteak beste, Usandizagaren *Mendi-Mendiyan* muntaia bikainean, Arriaga Antzokiak 2019an ekoizti zuen hartan, non soprano lituaniarra euskaraz abestu baitzuen. Duela gutxi, Stundyte Arriagara itzuli zen MAX sarien galan parte hartzeko eta bertan, hain zuzen ere, *Mendi-Mendiyan*en zati bat interpretatu zuen.

*Erwartung*, Stundyte berriz ere Bilbora dakarren Schönbergen opera, oso konposizio berezia da, eta egundoko kalitatea eskatzen du interpretatu ahal izateko, bai ahotsari dagokionez, bai musikari dagokionez. Ezinbesteko alderdi horretaz arduratuko da **Andrej Hovrin** maisua. Hovrin musikari errusiar bikaina da, agertokirik onenetan

ohikoa, eta pianista laguntzaile gisa 10 urte zituela hasi zena. Beraz, luxua izango da Schönbergen opera bikain eta misteriotsua dastatzea, Stundyteren ahots indartsuak eta Hovrinen esku bertutetsuek interpretatuta. Gainera, Gaizka Chamizo aktoreak ere parte hartuko du, labor agertuz baina dramaren ikuspegitik ekarpen garrantzitsua eginez.

### **Erwartung lanari buruz**

"Esztazio espiritual gorenko segundo bakar batean gertatzen den guztia mugimendu motelean irudikatzean datza, ordu erdira arte luzatuz". Horixe izan zen Arnold Schönbergek berak *Erwartung* operari buruz egin zuen deskribapen laburra. Lan honetan, jada dodekafonismorantz doan Schönberg bat aurkituko dugu, sorkuntza atonala eta disonantea erakusten dituen, baina ehundura espresionistaz betea dagoena eta aparteko indarra dituen. Historian zehar, asko dira *Erwartung*eko musika definitzen saiatu diren egileak; gau ilunean baso batean maitalearen bila dabilen emakume baten gaueko bidaia kontatzen edo deskribatzen duen Schönbergen obra hau irudikatzen saiatu direnak. Ilunpetan elkarren artean lotzen diren irudi fantasmagorikoak, gauaren mantua protagonistaren ziurgabetasunaren gainera erortzen da, zeinak etsi-etsian bilatzen baitu bere maitalea, zorigaitzaren itzala bere gainean jartzen den bitartean. Zalantzarik gabe, Ausrine Stundyteren ahots pribilegiatuak eta interpretatzeko gaitasunak obra honen intentsitate osoa transmitituko diote ikusleei.

### **ARRIAGA ANTZOKIKO SARRERAK**

- 22 eta 30 euro artean (beherapenekin)
- Salgai [www.teatroarriaga.eus](http://www.teatroarriaga.eus) helbidean, 946 850 850 telefono zenbakian edo antzokiko txarteldegietan, aurretiazko salmenta ordutegian.

## **Erwartung (Itxaronaldia)**

***Erwartung, Op. 17— ekitaldi bakarreko opera da, Arnold Schönberg-en musika eta Marie Pappenheim-en libretoa dituen.***

Zuzendaritza eszenikoa: **Calixto Bieito**

Sopranoa: **Ausrine Stundyte**

Pianoa: **Andrej Hovrin**

Antzezlea: **Gaizka Chamizo**

Ekoizpena: **Teatro Arriaga**

Informazio gehiago:

Komunikazioa - ARRIAGA ANTZOKIA

Jon Rozadilla Urrutia – 652 738 307

[comunicacion@teatroarriaga.eus](mailto:comunicacion@teatroarriaga.eus)

[www.teatroarriaga.eus](http://www.teatroarriaga.eus)